



LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

IKUSKERAK - 2

EAEKO EMAKUME ETA GIZONEN IRITZIEN ARTEKO ALDEAK
DIFERENCIAS DE OPINIÓN ENTRE MUJERES Y HOMBRES DE LA CAPV

2008ko azaroa
Noviembre 2008

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

Sarrera / <i>Introducción</i>	1
Laburpena / <i>Síntesis</i>	3
1 – Aisialdia / <i>Tiempo libre</i>	7
- Aisialdiaren garrantzia norberaren bizitzan / <i>Importancia del tiempo libre en la vida propia</i>	8
- Denbora librea lanegunetan / <i>Tiempo libre disponible los días laborables</i>	8
- Aisialdian gehien egiten diren jarduerak / <i>Actividades más realizadas en el tiempo libre</i>	9
2 – Kirola / <i>Deporte</i>	11
- Kirolzaletasuna / <i>Afición al deporte</i>	12
- Kirolarekiko interesa eta kirol jarduera / <i>Interés y práctica deportiva</i>	12
- Egiten diren kirolen kopurua / <i>Número de deportes practicados</i>	13
- Kirola egitearen maiztasuna / <i>Frecuencia de la práctica deportiva</i>	13
- Egiten diren kirolak / <i>Deportes practicados</i>	14
- Kirola egiteko arrazoiak / <i>Motivos para practicar deporte</i>	15
- Kirol elkarteetako kidea izatea / <i>Pertenencia a asociaciones deportivas</i>	15
3 – Irakurketa / <i>Lectura</i>	17
- Irakurketarekiko zaletasuna / <i>Afición a la lectura</i>	18
- Aisialdian irakurtzearen maiztasuna / <i>Frecuencia de lectura en el tiempo libre</i>	18
- Irakurketaren helburua / <i>Objetivo de la lectura</i>	19
- Aisialdian irakurtzeko arrazoiak / <i>Razones para dedicar el tiempo libre a la lectura</i>	19
- Egunkariak irakurtzearen maiztasuna / <i>Frecuencia de lectura de periódicos</i>	20
- Irakurtzen diren egunkari motak / <i>Tipos de periódicos leídos</i>	20
- Aldizkariak irakurtzearen maiztasuna / <i>Frecuencia de lectura de revistas</i>	21
- Irakurtzen diren aldizkari motak / <i>Tipos de revistas leídas</i>	21
- Liburuak irakurtzearen maiztasuna / <i>Frecuencia de lectura de libros</i>	22
- Irakurtzen diren liburu motak / <i>Tipos de libros leídos</i>	22
- Irakurtzen den literatura mota / <i>Tipo de literatura leída</i>	23
4 – Musika / <i>Música</i>	25
- Musika zaletasuna / <i>Afición a la música</i>	26
- Musikaren garrantzia norberaren bizitzan / <i>Importancia de la música en la vida propia</i>	26
- Etxean musika entzuteko ohitura / <i>Costumbre de escuchar música en casa</i>	26
- Musika entzuteko moduak / <i>Maneras de escuchar música</i>	27
- Musika entzuteko euskarriak / <i>Soportes en los que se escucha música</i>	27
- Musika estilo gustukoak / <i>Estilos musicales preferidos</i>	28
- Kontzertuetara joatea / <i>Asistencia a conciertos</i>	29
- Taldean abesteko ohitura / <i>Costumbre de cantar en grupo</i>	29
5 – Jaiak / <i>Fiestas</i>	31
- Jaiak bizitzeko moduak / <i>Formas de vivir las fiestas</i>	32
- Jai ekintzetan parte hartzea / <i>Participación en actos festivos</i>	32
Zehaztasun teknikoak / <i>Ficha técnica</i>	33

Sarrera / *Introducción*

Helburuak eta informazioaren iturria / *Objetivos y origen de la información*

Txosten hau *IKUSKERAK* izeneko urteroko **bildumaren bigarren alea** da, eta ikerketa honen helburua hainbat arlotan emakume eta gizonen iritzi eta jarreraren arteko aldeak ezagutzea da.

Bigarren ikerketa honen berariazko helburua emakume eta gizonen jarrera, ohitura eta iritzien arteko aldeak ezagutzea da gai zehatz bati buruz: aisialdiaren gozamena.

Horretarako **1996 eta 2008 artean jasotako zenbait daturen bilketa** egin da. Kasu guztietan datuak Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urte eta gehiagoko pertsonak osatutako lagin adierazgarri batzuei etxez etxe egindako inkestetatik datoz.

Inkesta horiek Euskal Soziometroen bildumarako gauzatu ziren. Kasu batzuetan hemen agertzen diren galderak zegozkion Soziometroan argitaratu ziren eta beste kasu batzuetan ikerketa monografiko zehatzetan.

Lan honetan aisialdiaren gozamenarekin lotutako bost arlori buruzko **gizon eta emakumeen iritziak aurkeztu dira irudietan**. Bost arlo horiek hauexek dira: sarrera (zenbateko garrantzia ematen zaion aisialdiari, zenbat denbora libre izaten den eta zein ekintza egiten diren gehien denbora horretan) eta, geroago, zaletasun zehatzak, hala nola, kirola, irakurketa eta musika, eta azken arlo bat herrietako jaiei buruzkoa. Kasu bakoitzean informazioa batu zen urtea adierazi da. Azalpen labur batzuek lagunduko dute datuak ulertzen.

Este informe es el **segundo de la serie** anual *IKUSKERAK*, cuyo objetivo es la recopilación de datos sobre temáticas donde se aprecian diferencias de opinión entre hombres y mujeres.

El **objetivo específico de este segundo estudio** es conocer las diferencias de actitudes, hábitos y opiniones entre las mujeres y los hombres en relación a un tema concreto como es el disfrute del tiempo libre.

Para ello se ha realizado una recopilación de **datos recogidos entre 1996 y 2008**. En todos los casos los datos proceden de encuestas realizadas a domicilio a muestras representativas de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco de 18 y más años.

Estas **encuestas** se realizaron para alimentar la serie de Sociómetros Vascos. En algunos casos las preguntas que aquí se presentan fueron publicadas en el Sociómetro Vasco correspondiente y en otros casos en monográficos específicos.

En este trabajo se presentan, **mediante una serie de gráficos, las opiniones de hombres y mujeres** en relación a cinco ámbitos relacionados con el disfrute del tiempo libre: una introducción (en la que se comenta la importancia concedida al tiempo libre, la cantidad de tiempo libre disponible, así como qué actividades se practican más durante ese tiempo) y, posteriormente, aficiones concretas como son el deporte, la lectura y la música, así como un último apartado dedicado a las fiestas populares. En cada caso, en el gráfico correspondiente se indica el año de recogida de dicha información. Unos breves comentarios ayudarán a la comprensión de los datos.

Laburpena / *Síntesis*

ALDERIK NABARMENENAK

AISIALDIA:

Gaur egun emakumezkoek eta gizonezkoek pareko garrantzia ematen diote aisialdiari, orain direla hamabi urteko aldeak gaindituz. Hala ere, emakumezkoek gizonezkoek baino denbora libre gutxiago dutela lanegunetan diote.

Astegunetan emakumeek gizonek baino gehiago betetzen dute beren denbora librea telebista ikusten, paseatzen edo kalean egoten eta irakurtzen; gizonek, aldiz, andreak baino gehiago betetzen dute kirola egiten. Asteburuetan eta jaiegunetan emakumeek berriro aukeratzen dute gehiago denbora librea paseatzen edo kalean egoten ematea eta mezataria edota erosketetara joaten diren emakumeak gizonak baino gehiago dira; gizonek, aldiz, emakumeek baino neurri handiagoan aukeratzen dute kirola egitea, mendira joatea, kirolak ikuskizunetara joatea eta ordenagailuarekin entretenitzea.

Sexuen arteko aldeak agerian geratzen dira aisialdia betetzeko hiru modu zehatzetan ere: kirolean, irakurketan eta musikan, baita herri jaiak bizi izaten diren moduan ere.

KIROLA:

Emakumeek gizonek baino kirolzaletasun txikiagoa dute eta emakumeen artean gutxiagok praktikatzen dute kirola, baina hori bai, kirola egiten duten emakumeek gizonek baino sarriago egiten dute.

Emakumeek gehien egiten dituzten kirolak (eta horiek, oro har, gizonek baino gehiago egiten dituzte) hauexek dira: ibiltzea, igeriketa, mantentze gimnasia eta aerobika eta antzekoak. Gizonek emakumeek baino gehiago aukeratzen dituzte txirindularitza, mendia, jogginga, futbola, areto-futbola eta pilota.

Oro har, emakumeek gizonek baino gehiago diote osasuna mantentzeko eta argal egoteko egiten dutela kirola; gizonek, aldiz, emakumeek baino neurri handiagoan egiten dute dibertitzez, gustatzen zaielako edota lagunekin egoteko.

Kirol elkarteetako kide izatea zabalduago dago gizonezkoen artean, emakumezkoen artean baino.

IRAKURKETA:

Emakumeek gizonek baino zaletasun handiagoa adierazten dute irakurketarekiko. Andreentzat irakurketaren helbururik nagusia entretenitzea da, gizonezkoentzat, aldiz, informatzea. Horrexegatik gizonek emakumeek baino gehiago irakurtzen dituzte egunkariak (bai informazio orokorrekoak, baita kirolak eta ekonomikoak ere) eta andreak gizonek baino gehiago aldizkariak eta liburuak.

Irakurtzen diren aldizkari motei dagokienez, emakumeek gizonek baino gehiago irakurtzen dituzte txutxumutxue-

DIFERENCIAS MÁS DESTACADAS

TIEMPO LIBRE:

Hoy en día mujeres y hombres conceden igual importancia al tiempo libre, salvando las diferencias que se registraban hace doce años. Sin embargo, las mujeres dicen disponer de menos tiempo libre que los varones los días laborables.

Entre semana las mujeres dedican más su tiempo que los hombres a ver la televisión, pasear o estar en la calle y leer, mientras que ellos prefieren más que ellas hacer deporte. Los fines de semana y festivos ellas se decantan nuevamente más por pasear o estar en la calle y también son más las mujeres que los hombres que van a misa o van de tiendas; en cambio ellos optan más que ellas por hacer deporte, ir al monte, asistir a espectáculos deportivos y entretenerse con el ordenador.

Las diferencias entre sexos también se aprecian en tres formas concretas de ocupar el tiempo libre: el deporte, la lectura y la música, así como en la forma de vivir las fiestas populares.

DEPORTE:

Las mujeres son menos aficionadas al deporte que los hombres y entre ellas son menos quienes lo practican, eso sí, las mujeres que hacen deporte lo realizan más frecuentemente que los varones.

Los deportes más practicados por las mujeres (y, en general, los practican en mayor medida que los hombres) son andar, nadar, gimnasia de mantenimiento y aeróbic y similares. Los hombres optan en mayor medida que ellas por el ciclismo, montañismo, jogging, fútbol, fútbol sala y pelota.

En general, las mujeres señalan en mayor medida que los hombres hacer deporte para cuidar su salud y su línea, mientras que ellos señalan más hacerlo por diversión, porque les gusta o por estar con los amigos.

La pertenencia a asociaciones deportivas es más elevada entre los hombres que entre las mujeres.

LECTURA:

Las mujeres declaran mayor afición a la lectura que los hombres. Para ellas la finalidad de la lectura es principalmente el entretenimiento, mientras que para los hombres es más la información. Por ello, los hombres leen más que las mujeres los periódicos (tanto de información general como deportivos y económicos) y ellas más que los hombres revistas y libros.

En cuanto al tipo de revistas leídas, las mujeres leen más que los hombres revistas del corazón, sobre moda, salud y decoración y, por el contrario, leen menos que ellos revistas de divulgación científica y cultural, deportivas y

takoak, modari, osasunari eta dekorazioari buruzkoak eta gutxiago zientzia eta kultur dibulgaziokoak, kiroletakoak, eta motorrari buruzkoak.

Liburuei dagokienez, andreak gizonak baino literatura gehiago irakurtzen dute eta gutxiago historia edo arteari buruzko liburuak, baita liburu profesional edo tekniko gutxiago ere. Literaturaren barruan, emakumeek gizonak baino gehiago aukeratzen dituzte nobelak, oro har, edo amodiozko nobelak eta gutxiago zientzia fikzioa.

MUSIKA:

Emakumeek gizonak baino musikazaletasun handiagoa adierazten dute, eta neurri handiagoan diote beren bizitzan musika oso garrantzitsua dela baita etxean musika entzuteko ohitura dutela ere. Era berean, gizonak baino gehiago diote musika beste gauzak egiten dituzten bitartean entzuten dutela eta batez ere, eta gizonak baino neurri handiagoan, musika entzuteko bakarrik ez diren euskarriak erabiltzen dituzte, hala nola irratia eta telebista.

Emakumeei gizonak baino gehiago gustatzen zaie popa, rantxerak, salsa eta antzekoak, "canción española" deiturikoa eta boleroak eta runbak, eta gizonak baino gutxiago rocka eta heavy metala.

Emakumeak gizonak baino gutxiagotan joaten dira kontzertuetara edota musika emanaldietara, baina ohitura handiagoa daukate familian edo lagunartean abesteko.

JAIK:

Emakumeek gizonak baino modu familarragoan bizi izaten dituzte jaiak (familia elkartzeko eta umeentzako ilusio egunak bezala), eta gizonak baino gehiago diote bizi izaten dituztela modu ludiko eta sozialagoan (lagunekin ateratzeko, gaueko dibertsiorako eta jenez eta edanez ospatzeko egunak bezala).

Jaietan emakumezkoak gizonzkoak baino gehiago joaten dira dantza ekitaldietara eta mezatarara edo beste ekintza erlijiosoetara, eta gizonak andreak baino gehiago joaten dira musika kontzertuetara, kirol lehiaketetara, herri kiroletako erakustaldietara, zezenketetara edo entzierroetara, txapelketa gastronomikoetara eta herri bazkari edo afarietara.

de motor.

En cuanto a los libros, las mujeres leen más literatura que los hombres y menos libros de historia o arte, así como menos libros profesionales y técnicos que éstos. Dentro de la literatura, las mujeres se decantan más que los hombres por la novela, en general, así como por la novela sentimental, y menos por la ciencia ficción.

MÚSICA:

Las mujeres declaran mayor afición a la música que los hombres, afirman en mayor medida que la música es muy importante en su vida y señalan mayor costumbre de escuchar música en casa. También reconocen más que ellos que escuchan la música al mismo tiempo que hacen otra cosa y para ello utilizan principalmente, y en mayor medida que los hombres, soportes no dedicados exclusivamente a escuchar música, como son la radio y la televisión.

A las mujeres les gustan más que a los hombres el pop, las rancheras, la salsa y similares, la canción española y los boleros y rumbas, y menos que a ellos el rock y el heavy metal.

Las mujeres asisten menos que los hombres a conciertos y espectáculos musicales pero declaran mayor costumbre de cantar en familia o con las amistades.

FIESTAS:

Las mujeres viven las fiestas de un modo más familiar que los hombres (como días de reunión familiar y de ilusión para los niños y niñas), mientras que ellos señalan más que ellas vivirlas de un modo lúdico y social (como días de salir con las amistades, de diversión nocturna y de celebrar comiendo y bebiendo).


Durante las fiestas las mujeres acuden más que los hombres a los espectáculos de danzas y a misa u otros actos religiosos, mientras que ellos acuden más que ellas a conciertos musicales, campeonatos deportivos, demostraciones de deporte rural, corridas de toros o encierros, concursos gastronómicos y comidas o cenas populares.

1 – Aisialdia / *Tiempo libre*


- Aisialdiaren garrantzia norberaren bizitzan / *Importancia del tiempo libre en la vida propia*
- Denbora librea lanegunetan / *Tiempo libre disponible los días laborables*
- Aisialdian gehien egiten diren jarduerak / *Actividades más realizadas en el tiempo libre*

Aisialdia / Tiempo libre

Esango didazu, mesedez, nolako garrantzia duen zure bizitzan aisialdiak, denbora libreak? /
Dígame, por favor, qué grado de importancia tiene en su vida el tiempo libre, de ocio



Astegunetan, zenbat denbora libre izaten duzu, batez beste? /
Los días laborables, ¿cuánto tiempo libre suele tener Ud. de media?




Gaur egun aisialdiari gizonezkoek eta emakumezkoek emandako garrantzia parekoa da. Garrantzi hori dezente gehitu da orain dela hamabi urtetik hona eta, era berean, gizonen eta emakumeen arteko aldeak desagertu dira.

Hala ere, emakumezkoek astegunetan duten denbora librea gizonezkoek dutena baino gutxiago da.

Hoy en día la importancia concedida al ocio por hombres y mujeres es igual. Esta importancia se ha incrementado notablemente respecto a hace doce años, al tiempo que se han eliminado las diferencias entre hombres y mujeres.

Sin embargo la cantidad de tiempo libre disponible los días laborables es inferior entre las mujeres que entre los hombres.


Zein hiru ekintza egiten dituzu gehienbat zure aisialdian edo denbora librean astegun normal batean? / ¿Qué tres tipos de actividades suele hacer principalmente durante su tiempo libre en un día laborable? *



Astegunetan gehiago dira beren denbora librea telebista, bideoa edo DVDa ikusten, paseatzen edo kalean egoten eta irakurtzen ematen duten emakumeak gizonezkoak baino. Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino ohikoagoa da kirola egitea. Apur bat gehiago dira ere lanegunetako denbora librean ordenagailuarekin entretenitzen diren edo mendira joaten diren gizonek emakumeak baino.

Entre semana son más las mujeres que los hombres que dedican su tiempo libre a ver la televisión, video o DVD, a pasear o estar en la calle y a leer. Entre los hombres es más habitual que entre las mujeres hacer deporte. También hay algunos más hombres que mujeres que en su tiempo libre los días laborables se entretienen con el ordenador o van al monte.

Eta asteburuetan edota jaiegunetan? / ¿Y los fines de semana y días festivos? *



Asteburuetan eta jaiegunetan emakumeek gizonek baino neurri handiagoan aukeratzen dute beren denbora librean paseatzea edo kalean egotea baita mezatarara joatea eta dendetan ibiltzea ere. Gizonek, aldiz, emakumeek baino gehiago aukeratzen dute kirola egitea, mendira joatea, kiroltako ikuskizunetara joatea eta ordenagailuarekin entretenitzea.

Los fines de semana y festivos las mujeres optan más que los hombres por dedicar su tiempo libre a pasear o estar en la calle y, también a ir a misa e ir de tiendas. Los hombres, en cambio, eligen más que ellas hacer deporte, ir al monte, asistir a espectáculos deportivos y entretenerse con el ordenador.


2 – Kirola / *Deporte*

- Kiolzaletasuna / *Afición al deporte*
- Kiolarekiko interesa eta kirol jarduera / *Interés y práctica deportiva*
- Egiten diren kirolen kopurua / *Número de deportes practicados*
- Kirola egitearen maiztasuna / *Frecuencia de la práctica deportiva*
- Egiten diren kirolak / *Deportes practicados*
- Kirola egiteko arrazoiak / *Motivos para practicar deporte*
- Kirol elkarteetako kidea izatea / *Pertenencia a asociaciones deportivas*

Kirola / Deporte

Kirola egin ala ez, zu kirolzalea zara? /


Independientemente de que lo practique o no, ¿es Ud. una persona aficionada al deporte?



Emakumezkoek gizonezkoek baino kirolzaletasun gutxiago adierazten dute.

Las mujeres son bastante menos aficionadas al deporte que los hombres.


Kirolarekiko interesa eta praktikari dagokienez, biztanleak sei multzotan bana daitezke. Zeure burua zeinetan ikusten duzu? / Con respecto al interés por el deporte y a su nivel de práctica, se pueden considerar seis grupos de población, ¿con cuál de ellos se identifica Ud. más?



Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino gehiago dira kirola ez dutela egiten eta interesik ere ez dutela diotenak.

Entre las mujeres son más que entre los hombres quienes señalan que ni practican deporte ni les interesa hacerlo.


Kirolak egiten duzu? / ¿ Practica Ud. actualmente algún deporte?



Kirolak egiten ez duten emakumezko gehiago daude gizonezkoak baino. Aldiz, kirol bat baino gehiago egitea ohikoagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.

Hay más mujeres que hombres que no practican ningún deporte. Por el contrario, practicar varios deportes es más habitual entre los varones que entre las mujeres.


Oro har, zenbatero egiten duzu kirola? * / Por lo general, ¿con qué frecuencia suele practicar deporte? *



Kirola egiten duten emakumeek gizonek baino sarrago egiten dute.

Las mujeres que practican deporte lo hacen con mayor frecuencia que los hombres que también hacen deporte.


Zehazki, zein edo zeintzu kirol egiten dituzu? / En concreto, ¿qué deporte o deportes practica?



Emakumeen artean gizonen artean baino gehiago ateratzen dira ibiltzera edota egiten dute mantentze-gimnasia, aerobica edo antzekoak. Dena dela, gizonek baino dezente gutxiago praktikatzen dituzte ondoko kirolak: txirindularitza, mendia, jogginga, futbola, areto-futbola edo antzekoak eta pilota.

Hay más mujeres que hombres que salen a andar o que practican gimnasia de mantenimiento, aeróbic o similares. Sin embargo, las mujeres practican en bastante menor medida que los hombres los siguientes deportes: ciclismo, montañismo, jogging, fútbol, fútbol sala o similares y pelota.


Zergatik egiten duzu kirola? * / ¿Por qué motivos practica Ud. deporte? *



Kirola praktikatzen dutenek hori egiteko adierazitako arrazoiaren artean alpatzekoa da emakumeek gizonek baino neurri handiagoan esan dutela osasuna mantendu edo hobetzeko eta argal egoteko egiten dutela kirola eta, aldiz, gizonek baino gutxiago dibertitzeagatik, gustatzen zaielako edota lagunekin egotearen egiten dutela.

Entre los motivos para hacer deporte expresados por quienes practican alguno, destaca que las mujeres señalan en mayor medida que los hombres que lo hacen para mantener o mejorar la salud y por cuidar la línea; en cambio, señalan menos que los hombres hacerlo por diversión, porque les guste o por estar con los amigos o amigas.

Esango didazu kirol elkarteren bateko kide edo partaide zaren, orain ez, baina lehen izan zaren, kide izan gabe horietako batean laguntzen duzun, edo inoiz ez zaren kide edo laguntzailea izan? / ¿Puede Ud. decirme si pertenece actualmente a alguna asociación deportiva, si ha pertenecido aunque ya no pertenezca, si, aun no perteneciendo, colabora con ellas, o si no ha pertenecido ni colaborado nunca?



Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino askoz gutxiago dira kirol elkarteetako kide direnak.


La pertenencia a asociaciones deportivas es bastante menos frecuente entre las mujeres que entre los hombres.

3 – Irakurketa / *Lectura*


- Irakurketarekiko zaletasuna / *Afición a la lectura*
- Aisialdian irakurtzearen maiztasuna / *Frecuencia de lectura en el tiempo libre*
- Irakurketaren helburua / *Objetivo de la lectura*
- Aisialdian irakurtzeko arrazoiak / *Razones para dedicar el tiempo libre a la lectura*
- Egunkariak irakurtzearen maiztasuna / *Frecuencia de lectura de periódicos*
- Irakurtzen diren egunkari motak / *Tipos de periódicos leídos*
- Aldizkariak irakurtzearen maiztasuna / *Frecuencia de lectura de revistas*
- Irakurtzen diren aldizkari motak / *Tipos de revistas leídas*
- Liburuak irakurtzearen maiztasuna / *Frecuencia de lectura de libros*
- Irakurtzen diren liburu motak / *Tipos de libros leídos*
- Irakurtzen den literatura mota / *Tipo de literatura leída*

Irakurketa / Lectura

Zenbateraino gustatzen zaizu irakurtzea? / ¿Cuánto le gusta leer?



Esango didazu zehazki zenbatero ematen duzun zure denbora librearen zati bat prentsa, liburuak edo bestelakoak irakurtzen? / ¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. dedicar parte de su tiempo libre a la lectura en general, ya sea de prensa, libros, manuales, etc?




Emakumeei gizonei baino gehiago gustatzen zaie irakurtzea, hala ere, gizonek emakumeei baino gehiago diote egunero irakurtzen dutela.

A las mujeres les gusta más que a los hombres leer, sin embargo son más los varones que leen a diario que las mujeres que también lo hacen.


Zure ustez, zein izan behar da irakurketaren helburu nagusia? /

¿Cuál considera Ud. que debe ser el principal objetivo que debe cumplir la lectura?



Esango dizkizazu zure denbora librean irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak? * /

*¿Podría decirme cuáles son las dos razones principales por las que Ud. dedica tiempo libre a leer? **




* Galdera hau irakurtzen dutela, gutxitan bada ere, diotenei bakarrik galdetu zaie. Erantzun guztien batuketa 100 baino handiagoa da, bi gauza aipatu ahal zirelako / Esta pregunta únicamente se ha realizado a quienes dicen leer, aunque sea raramente. La suma total de respuestas es superior a 100, dado que se podían mencionar dos cosas.


Gizonek emakumeek baino neurri handiagoan uste dute irakurketaren helburu nagusia informatzea dela, eta emakumeek gehiago diote denbora pasatzea dela. Berez, irakurtzen duten emakumeek gizonek baino neurri handiagoan diote denbora pasatzeko eta ondo pasatzeko irakurtzen dutela, eta gizonek baino gutxiago diote informatuta egoteko egiten dutela.

Los hombres comparten más la opinión de que el principal objetivo de la lectura es informar, mientras que las mujeres le atribuyen más el objetivo de distraer. De hecho, las mujeres que leen señalan en mayor medida que los hombres que lo hacen para distraerse y disfrutar, y menos que ellos para estar informadas.

Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun egunkariak? /
¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer periódicos?




Zehazkiago, nolako egunkariak irakurtzen dituzu? * / Más concretamente, ¿suele Ud. leer periódicos...? *




Emakumeek gizonek baino gutxiago irakurtzen dute eguneroko prentsa eta, gainera, maiztasun gutxiagorekin. Hori dela eta, ez da haritzekoa gizonek baino gutxiago irakurtzea informazio orokorreko egunkariak, kiroltakoak (hemen dago alderik handiena) eta ekonomikoak.

Las mujeres leen menos la prensa diaria que los hombres y, además, lo hacen con menor frecuencia. No es de extrañar, por tanto, que lean menos periódicos de información general, menos periódicos deportivos (aquí se registra la diferencia más destacada) y menos periódicos económicos que los hombres.

Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun aldizkariak? /
*¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer revistas? **



Eta, normalean, nolako aldizkariak irakurtzen dituzu? * /
*Y de manera habitual, ¿qué tipo de revistas suele leer? **




Egunkariekin gertatzen den ez bezala, aldizkariak irakurtzen dituzten emakume gehiago daude, gizonak baino, eta gainera sarriago irakurtzen dituzte emakumeek.

Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan adierazi dute txutxumutxuetako aldizkariak, modari buruzkoak, osasunari buruzkoak eta dekoraziokoak irakurtzen dituztela eta, aldiz, gizonak baino gutxiago zientzia eta kultur dibulgaziokoak, kirolekoak eta motorrari buruzkoak.


A diferencia de los periódicos, hay más mujeres que hombres que leen revistas y además lo hacen con mayor frecuencia.

Las mujeres señalan en mayor medida que los hombres leer revistas del corazón, sobre moda, salud y decoración, y, por el contrario, leen menos que ellos revistas de divulgación científica y cultural, deportivas y sobre motor.

Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun liburuak? /
¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer libros?



Zehazkiago, nolako liburuak irakurtzen dituzu gehien? * /
*Concretamente, ¿podría decirme qué tipo de libros lee Ud. más frecuentemente? **



Gizon baino emakume gehiago daude liburuak egunero irakurtzen dituztenak eta gutxiago inoiz irakurtzen ez dituztenak.


Emakumeek gizonek baino literatura edo entretenimenduzko liburu gehiago irakurtzen dituzte eta, aldiz, historia edo arteari buruzko edota liburu profesional edo tekniko gutxiago.

Hay más mujeres que hombres que leen libros a diario y menos que no los leen nunca.

Las mujeres leen más libros de literatura o entretenimiento y menos libros de historia o arte, así como profesionales o técnicos que los hombres.

Ondoren irakurriko dizkizudan literatur generoen artean esadazu zeintzuk diren gehien irakurtzen dituzun hiruak, lanerako behar dituzunak kontatu gabe * /

*De los siguientes géneros literarios que voy a leer a continuación, ¿cuáles de ellos suele Ud. leer con mayor frecuencia (exceptuando los que requiera para su trabajo)? **



Oro har, emakumeek gizonek baino gehiago aukeratzen dituzte nobelak orokorrean eta amodiozko nobelak, eta gutxiago zientzia fikziozko liburuak.


En general, las mujeres se decantan en mayor medida que los hombres por la novela en general y por la novela de amor, y menos que ellos por la ciencia ficción.

4 – Musika / Música


- Musika zaletasuna / *Afición a la música*
- Musikaren garrantzia norberaren bizitzan / *Importancia de la música en la vida propia*
- Etxean musika entzuteko ohitura / *Costumbre de escuchar música en casa*
- Musika entzuteko moduak / *Maneras de escuchar música*
- Musika entzuteko euskarriak / *Soportes en los que se escucha música*
- Musika estilo gustukoenak / *Estilos musicales preferidos*
- Kontzertuetara joatea / *Asistencia a conciertos*
- Taldean abesteko ohitura / *Costumbre de cantar en grupo*

Musika / Música


Oro har, zenbat gustatzen zaizu musika? / En general, ¿cuánto le gusta la música?



Zure bizitzan zenbateko garrantzia du musikak? / En su vida, ¿qué importancia tiene la música?




Entzuten duzu musika etxean? / ¿Escucha Ud. música en casa?




Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan adierazi dute musikarekiko zaletasuna dutela, beren bizitzan musikak garrantzi handia duela eta etxean sarritan entzuten dutela.

Las mujeres declaran en mayor medida que los hombres que tienen afición por la música, que ésta tiene mucha importancia en su vida, así como que la escuchan en casa a menudo.

Normalean nola entzuten duzu musika? / ¿Normalmente cómo escucha Ud. la música?




Entzuten al duzu musika ...? * / ¿Suele Ud. escuchar música...? *



Musika entzuteko erak apur bat desberdinak dira gizon eta emakumeen artean: emakumeek neurri handiagoan diote beste gauza bat egiten duten bitartean entzuten dutela eta horretarako gehiago erabiltzen dituzte musika entzuteko bakarrik ez diren euskarriak, hau da, irratia eta telebista. Gizonek, aldiz, emakumeak baino gehiago entzuten dute musika besterik egin gabe, hau da, gozatzeko bakarrik, eta horretarako emakumeek baino neurri handiagoan erabiltzen dituzte berez musika entzutekoak diren tresnak (CDak, binilo diskoak eta MP3 edo MP4ak).

Las formas de escuchar música son algo diferentes entre los hombres y las mujeres: las mujeres señalan en mayor medida que la escuchan mientras hacen otra cosa y para ello utilizan en mayor medida soportes no destinados exclusivamente a escuchar música, como son la radio o la televisión. Los hombres, por su parte, escuchan la música sin hacer otra cosa, por el mero disfrute de la misma, en mayor medida que las mujeres y para ello utilizan más que ellas soportes destinados específicamente a escuchar música (CDs, discos de vinilo y MP3 y MP4).


Zeintzuk dira gehien gustatzen zaizkizun hiru musika estiloak? * /
¿Cuáles son los tres estilos musicales que más le gustan? *



Beren musika estilo gustukoenen artean emakumeek gizonek baino neurri handiagoan aipatu dituzte popa, rantxerak, salsa, merengea eta antzekoak, "canción española" deiturikoa, baita boleroak eta runbak ere. Aldiz, gizonek baino neurri txikiagoan aipatu dituzte rocka eta heavy metala.


Las mujeres señalan entre sus estilos musicales preferidos en mayor medida que los hombres la música pop, así como las rancheras, la salsa, merengue y similares, la canción española y los boleros y rumbas. Por el contrario, señalan menos que los varones el rock y el heavy metal.

Azken 12 hilabeteetan zenbat aldiz joan zara kontzertu edo musika emanaldietara? /
¿En los últimos 12 meses cuántas veces ha ido Ud. a conciertos o a espectáculos musicales?



Gizonezkoak emakumezkoak baino zertxobait gehiago joaten dira kontzertuetara edota musika emanaldietara. | Los hombres asisten algo más que las mujeres a conciertos o espectáculos musicales.

Ba al duzu familian edo lagunartean abesteko ohiturarik? /
¿Tiene Ud. costumbre de cantar en familia o con los amigos?




Emakumeek gizonek baino ohitura zabalagoa dute familian edo lagunartean abesteko. | Las mujeres tienen mayor costumbre que los hombres de cantar con la familia y/o amistades.

5 – Jaiak / *Fiestas*

- Jaiak bizitzeko moduak / *Formas de vivir las fiestas*
- Jai ekintzetan parte hartzea / *Participación en actos festivos*

Jaiak / Fiestas


Ondoko aukeretatik zeintzuk bik adierazten dute hobekien zuk jaiak bizitzeko duzun modua? / De entre las siguientes opciones, ¿cuáles dos identifican mejor su forma de vivir las fiestas?



Emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan bizi izaten dituzte herrietako jaiak familia elkartzeko eta umeentzako ilusio egunak bezala; gizonezkoek, aldiz, emakumezkoek baino gehiago diote lagunekin ateratzeko, gaueko dibertsiorako eta janean eta edanez ospatzeko egunak bezala bizi izaten dituztela.

Las mujeres señalan en mayor medida que los hombres que viven las fiestas populares como días de reunión familiar y de ilusión para los niños y niñas, mientras que ellos señalan más que ellas vivirlas como días de salir con las amistades, de diversión nocturna y de celebrar comiendo y bebiendo.

Euskal Herriko jaietan ohikoak diren ekintza hauei buruz esadazu, mesedez, horietara joaten zaren edo parte hartzen duzun ala ez * / De las siguientes actividades habituales en fiestas del País Vasco, dígame si suele participar o asistir a ellas *.



Emakumeek gizonek baino gehiago diote jaietan dantza ekitaldietara eta mezatarra edota beste ekintza erlijiosoetara joaten direla, eta gizonek baino gutxiago kontzertuetara, txapelketa gastronomikoetara, herri bazkari edo afarietara, kirol lehiaketetara, herri kirolak eta zezenketetara edo entzierroetara.

Las mujeres dicen acudir más que los hombres durante las fiestas a los espectáculos de danzas y a misa u otros actos religiosos, y menos que ellos a conciertos, concursos gastronómicos, comidas o cenas populares, campeonatos deportivos, demostraciones de deporte rural y corridas de toros y encierros.

Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Txosten honetan aurkezten den informazioaren bilketa ikerketa ezberdinetan burutu zen **1996 eta 2008 bitartean**.

Kasu guztietan galdesorta egituratu eta itxia erabiliz gauzatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri batzuei **etxean egindako banakako elkarrizketen bidez**.

Gizabanakoaren **hautaketa** prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz¹, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaitzak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta azken Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako boto oroimenaren arabera haztatu ziren.

Kasu guztietan inkestaren kalitatea **kontrolatu** egin zen: hasieran landa lana egin zuen enpresak berak telefono bidez edota etxean bertan kontrolatu zituen inkestak eta, horrez gain, bai enpresak, bai Prospekzio Soziologikoen Kabineteak jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak -logika, koherentzia eta heinari buruzkoak- egin zituzten.

Ikerketa honen **diseinua**, emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio erabat.

La recogida de información que se presenta en este informe se realizó en distintos **estudios entre 1996 y 2008**.

En todos los casos se llevó a cabo a través de **entrevista individual** mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada **a domicilio** a muestras representativas de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La **selección** de las personas a entrevistar se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias¹ y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las últimas elecciones al Parlamento Vasco, en cada uno de los tres Territorios.

En todos los casos se llevaron a cabo **controles** de calidad de las encuestas: en primer lugar, controles telefónicos y domiciliarios por parte de la empresa que realizó el trabajo de campo correspondiente y, posteriormente, todos los controles informáticos pertinentes -lógicos, de coherencia y de rango- en cada uno de los cuestionarios recogidos, tanto por parte de la empresa como del propio Gabinete de Prospección Sociológica.

El **diseño** de esta investigación, el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica.

¹ Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zati" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiak), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

¹ El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por Eustat.

IKUSKERAK
